

Plan Estrategikoa

2022-2030



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA
de ONGD EUSKADI



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

www.ongdeuskadi.org

Araba

Simone de Beauvoir elkarteen etxea
San Ignacio de Loyola 8, 3. pisua, 1. bulegoa.
01001. Vitoria-Gasteiz.
945 280 745
araba@ongdeuskadi.org

Bizkaia

Erronda z.g. (5. zenbakiaren aurrean), 3. pisua, C bulegoa.
48005. Bilbao.
944 150 300
bizkaia@ongdeuskadi.org

Gipuzkoa

Iparragirre 8, behea.
20001. Donostia.
943 463 526
gipuzkoa@ongdeuskadi.org

Vitoria-Gasteizen, 2022ko martxoaren 10ean egindako Ezohiko Batzar Orokorrean onetsitako dokumentua.

Aurkibidea

01 Aurkezpena

02 Nor gara:
helburua, ikuspegia, balioak, zeharkako ardatzak
eta barne antolaketa

08 Aurrekariak

10 Elaborazio-prozesua

12 2022-2030eko Plan Estrategikoa

34 Ebaluazioa

1

Aurkezpena

Planifikazio-prozesu bat hasteak, batez ere erakundearen estrategiari buruzkoak, honako hau eskatzen du: gelditzea, pentsatzea, eta atzera begiratzea, zer egin dugun eta nola jokatu dugun berraztertzeko. Baina, batez ere, eskatzen du datozen urteetako testuinguruari eta erronkei erreparatzea. Horrek guztiak gelditzea dakar, baina abiada hartzeko soilik.

Euskadiko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeen Koordinakundeak (Koordinakundea hemendik aurrera) erakundeen sare handia osatzen dugu, eta, beraz, beti gaude gure burua berrikusten eta egoerara egokitzen, gure lana trebetasun osoz egiten jarraitu ahal izateko. Batez ere gaur egungo testuinguruan, gero eta konplexuagoa, aldakorragoa, arriskutsuagoa eta etsaiagoa baita. Irmoki uste dugu, batetik, inoiz baino beharrezkoagoak direla garapenerako laguntza, elkartasuna, giza eskubideen defentsa, feminismoa eta justizia globala, eta, bestetik, GGKEok bermea garela printzipio horien defentsarako borroka etenezinean. Halaber, gizarteak modu aktiboan parte hartzearen alde egiten dugu, eta uste dugu mundu justuago eta solidarioago bat lortzeko balioa dela, berez, borrokatzeko antolatzea. Zentzu horretan, GGKEak bere aletxoak jarri nahi duten pertsonen adierazpen antolatua gara, mundu hau eraldatzeko, bizitzeko egokiagoa eta hobea bihurtzeko.

Idea horiek berresten ditugu, dokumentu honetan aurkezten dugun 2022-2030eko Plan Estrategiko honen bidez. Hain beharrezkoa den lankidetzaz-politika bultzatu nahi dugu, herritarren solidaritate-adierazpen gisa. Egoera zaugarrienean dauden pertsonen kezkekin konektatu, eta arazo horiei aurre egin ahal izateko sektore sendoa nahi dugu. Gainera, egiaztatzen dugu 2030 Agendaren esparruaren barruan planifikatzeak gure ikuspegia zabalduko duela giza garapen jasangarriaren nazioarteko arloran, baita ahalbidetu ere Nazio Batuek interpelatzeko duten agenda instituzionalarekin gurutzatzea. Uste dugu esparru hori egokia izango dela, gure zereginetik, leku guztietan parte hartzeko, bai justizia globalean, bai giza eskubideen defentsan, bai pertsona ororen duintasunean. Ez da gutxi.

Gobernu Batzordea
Euskadiko GGKE-en Koordinakundea

2

Nor gara

HELBURUA

Euskadiko garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen (GGKE) kolektibo bat gara, eta justizia globalaren alde egiten dugu lan honako hauen bitartez, besteak beste: garapenerako lankidetzaz; gizartea eraldatzeko hezkuntza; ekintza humanitarioa; genero-ekitatea, baina lankidetzaz feminista helburu duena; bakea eta giza eskubideen sustapena; eta giza garapen jasagarria.

Sare hau 1988an jaio zen, 11 erakunde fundatzailearen eskutik. Egun, GGKE-ek ugariz dago osatuta (81, 2022an). Hala, sektorearen isla argia gara, eta GGKE-en eta gizartearen proposamenak, interesak eta balioak ordezkatzeko ditugu, administrazio publikoen, beste erakundeen eta herritarren aurrean.

Koordinakundeak eta erakunde bazkideek jokabide-kode komun baten barruan jarduten dugu. Jokabide-kode horrek gure lana gidatu behar duten printzipioak eta balioak jasotzen ditu, baita partekatutako gardentasunerako eta gobernatze onerako estandarrak ere.

1999tik, Espainiako Garapenerako erakundearen Koordinakundearen parte gara. 2009an, Eusko Jaurlaritzak Ignacio Ellacuría saria eman zigun, gure ibilbidearen aitortpen.

IKUSPEGIA

Gaur egungo sistema kapitalista, heteropatriarkal, arrazista eta kolonialak pobrezia, desberdintasunak, injustizia eta giza eskubideen urratze larriak eragiten ditu, gure inguruan eta munduko beste hainbat tokitan. Hori egiten du, hain zuzen ere, elementu ugari eragiten diotelako guztiz elkarrekin erlazionatuta eta globalizatuta dagoen mundu batean. Horregatik, Koordinakundearen uste dugu gaur egungo arazoak eta erronkak globalak direla eta, beraz, konponbideek ere hedadura bera lortu behar dutela.

Koordinakundearen lan egiten dugu justizia globalaren alde, pobrezia eta desberdintasunak eragiten dituzten kausak gaituzten laguntzeko, eta pertsona ororentzat bidezkoagoa den mundua sortzen laguntzeko; horrela, pertsonen bizitzak eta duintasuna erdigunean jarriko ditugu. Eraldaketa sozialean ere laguntzen dugu, eta herritarrengan kontzientzia kritikoa eta solidarioa sortzen dugu.

Giza garapen jasagarriaren eta ingurumenaren zaintzaren ikuspegitik jarduten dugu, baina naturaren eskubideen ikuspuntu berritzailea helburu izanda. Genero-ekitatearekiko eta ikuspegi feministarekiko konpromiso irmoa daukagu, gainera, eta horietan gehiago sakontzeko asmoa daukagu. Horrekin batera, eta helburu horietan aurrera egiteko, Genero-politika daukagu (berrikuste- eta eguneratze-prozesuan, 2022an).

Hauek dira gure erakundearen lehentasunezko helburuak:

- Kalitatezko garapenerako lankidetzaren politika sustatzea eta bermatzea, erakunde publiko, pribatu eta bazkide diren GGKE-etan oinarritua eta egonkortua.
- Jarduerak koordinatzea, esku-hartze egokiak eta eraginkorrak lortzeko, bazkide diren erakundearen lankidetzaren eta elkarrizketaren bitartez.
- GGKEak beren lanean laguntzea, beren jarduketak eta gaitasun politiko eta teknikoak indartzea, eta aliantzak erraztea, beren baliabideak kolektiboaren zerbitzuan jarritz, eta alderantziz.
- Kontzientzia kritikoa eratzen laguntzea, justizia globala, giza eskubideak eta berdintasuna nagusitu daitezen.

Hori guztia lortzeko, Koordinakundearen herritarren parte-hartzea errazten dugu, baita eztabaida kritikoa ere gure garapen-ereduak pobreziarekin eta berdintasun ezarekin duen harremanaren inguruan. Halaber, elkartu, eztabaidatu eta taldean jarduteko guneak ahalbidetzen ditugu, bazkide diren GGKE eta eraldatzeko helburuak partekatzen dituzten beste plataforma, sare eta mugimendu sozialen artean komunean dituzten jarrera eta irizpideak adosteko.

BALIOAK

Gure ustez, nazioarteko lankidetza da Euskaditik pobretutako herrialdeekin eta egoera zaurgarrienetan dauden kolektiboekin batera egiten dugun lan horizontala, giza garapena eragozten duten oztopoak ezabatzeko. Uste dugu solidaritatean, elkarrekikotasunean eta interes ezan oinarritzen den prozesua dela, bestelako interes ekonomikorik gabe. Ikuspuntu sinplista edo eurozentrismen aurrean, garapen are barneratzaileagoa sustatzen dugu. Garapen horren arabera aitortzen da, besteak beste, aniztasunak planeta eta gizarteak aberastu, eta giza eskubideak indartzen dituela.

Gainera, uste dugu lankidetza dela funtsezko tresna pertsonen eta herrialdeen garapena zailtzen dituzten mekanismoei buruz hezteko, sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko. Horregatik, beharrezko palanka da gizarte zibil antolatua, giza eskubideekiko konprometitua eta kontzientziatua, —eta, beraz, libreagoa—, batetik, gizartearen eraldatzea aktiba dezan eta, bestetik, munduko desorekak ezabatzeko eraginkorrak diren neurriak eska ditzan.

Koordinakundeak, era berean, kolektibo hau osatzen duten erakundeek ekintzak gidatzen dituzten balioak islatzen ditu. Horregatik iruditzen zaigu garrantzitsua, besteak beste, demokrazia, parte-hartzea, independentzia, askatasuna, gardentasuna, koherentzia eta genero-ekitatea sustatzea.

Azkenik, pobrezia, desberdintasunak eta bazterkeria ezabatzeko borroka horretan, munduan dauden beste hainbat talde sozialek bezala, gure egiten dugu *beste mundu bat posible da* goiburua, baita *inor atzean ez uztearen* borondatea ere.

ZEHARKAKO ARDATZAK

- **Giza eskubideen ikuspegia**

Ikuspegi honek erreferentzia moduan hartzen ditu unibertsaltasuna, berdintasuna eta bazterkeria-eza. Horregatik, lehentasunezko ekintzak proposatzen ditu zaugarri izateko edo gizarte-bazterketan erortzeko arriskuan dauden taldeentzat. Hori lortzeko, ezinbestekoa da eskubideen eta betebeharren titularrak identifikatzea, eta bien gaitasunak indartzen laguntzea. Lehenengo kasuan, eskubideak aldarrika ditzaten, eta, bigarrenean, eskubideak babesten, sustatzen eta betetzen direla berma dezaten, baita giza eskubideen erreparaziotik ere.

Ikuspegi horrek eskatzen du aitortzea eskubideak integralak, interseksionalak eta anitzak direla, kolektibo jakin batzuei arreta berezia emanik, hala nola, haurrei edota emakumeei.

- **Gizarte-eraldaketaren ikuspegia**

Planteamendu honek erreferentzia egiten dio, batetik, bizitzaren eta planetaren jasangarritasunari, eta, bestetik, horiek zaintzeko konpromisoa erdigunean kokatzea ahalbidetzen duten ereduak eraikitzeko beharrari eta gaitasunari. Eta honetan datza: gizarte-, politika-, ingurumen-, ekonomia-, ekoizpen-, kontsumo- eta kultura-eredu barneratzaile bat sustatzea, solidaritatea, genero-ekitatea, justizia soziala, kulturartekotasun kritikoa eta ingurumenarekiko errespetua bultzatzeko.

Horretarako, oinarri ditu kontzientzia kritikoa eta ahalduntze indibidual eta kolektiboa hartzea, pertsona eta herri ororekin justua, bidezkoa eta jasangarria den elkarbizitza lortzeko. Gainera, prozesuak errazten eta bultzatzen du desberdintasunak eragiten dituzten kausei buruz kontzientziaztea; botere- eta pribilegio-harremanak aztertzen ditu; eta eredu bidegabe eta jasanezin hau eraldatzeko ekintzak sustatzen ditu. Azkenik, pertsona guztiok subjektu politikoak eta eraldaketarako protagonistak garela aitortzen du.

- **Lankidetza feministarantz igarotzen ari den genero-ekitatearen ikuspegia**

Koordinakundean, genero-ikuspegitik ikuspegi feministarantz igarotzearen alde egiten dugu, bai tokiko bazkideekin lanean, baita barne-esparruan ere. Premisa honetatik abiatzen gara: ezin daiteke benetako eraldaketa soziala gertatu, emakumeak desberdintasun-egoeran badaude beren oinarrizko beharrak betetzeko eta beren interesei erantzuteko. Halaber, uste dugu feminismoak direla egoera hori eztabaidaren erdigunean jartzeko eta benetako aurrerapausoak lortzeko beharrezko tresnak.

Horregatik, inor atzean utziko ez duen garapenerako lankidetza eraldatzaile eta feministaren alde egiten dugu; feminismoen ekarpenak erreferentziatzat hartuko ditu, gure inguruko eta tokiko GGKE bazkideekin lan egiten dugun tokietatik.

Planteamendu honek, halaber, aniztasuna kudeatzen du, baita LGTBQ+ kolektiboek bizi dituzten errealitateak eta testuinguruak ere.

- **Tokiko-mundu mailako ikuspegia**

Ikuspegi honek sistemaren interdependentzietan sakontzea eskatzen du, bidegabekeriaren kausa estrukturaletan eta beren inpaktuetan (bai tokikoak, bai globalak), baita borroketan, erantzunkidetasunean eta erronka komunetan ere, beti ere herritartasun globalaren ikuspegitik. Mundu interkonektatu honetan, beharrezkoa da hurbileko errealitateak aztertzea eta interpretatzea, dinamika estrukturaleri lotuz; izan ere, horiek eragiten dituzte desberdintasunek, bidegabekeriak, bazterkeriak eta naturaren erabilerak markatutako gizarteak.

Pertsonen eta erakundearen hurbileko jardute-gunea da gertuenen daukaten testuingurua, bertan baita ukate ezagutzarik eta zuzenean eraldatzeko gaitasunik handiena. Hala eta guztiz ere, tokiko testuinguruek gero eta nabarmenago nabaritzen dute munduko erabakien eta jarduteen eragina, haien garapena laguntzen (edo mugatzen) baitute. Horregatik, gertuen dagoen arloari begiratzeak eta bertan lan egiteak —lotura zabalago hori gabe— ikuspegi eta jardute partzialak eta mugatuak dakartza, eta desberdintasunak eta eskubideak urratzea dituzte ondorioztat.

Ikuspegi honek koherentzia handiagoa dauka globalizazioaren testuinguruarekin. Izan ere, justizia globalaren aldeko da, eta iparraldea-hegoaldea binomio tradizionala ukatzen du. Gainera, ahalbidetu egiten du tokiko eta nazioarteko aliantzak sortzea errazten duen gako zabalagoan lan egitea, komunean ditugun helburuetan aurrera egiteko.

- **Naturaren eskubideen ikuspegia**

Planteamendu honek eskatzen du beste aurrerapauso bat ematea erakundeak ingurumenaren zaintzaren inguruan daukan ikuspegian eta kezkan. Gainditu egin nahi du ingurumenarekiko erantzukizunaren edota planteamendu ekologistaren inguruan dagoen ikuspegi murriztailea —eta, zentzu batean, ekonomizista—, eta herrialde sortzaileen ikuspegia gehitzea du helburu. Ahalbidetu egiten du beste herrialdeetako —hala nola, Indiako edo Latinoamerikako— GGKE aliatuekin partekatutako lan-esperientzia handiak gure esku-hartzeei irakaspen garrantzitsuak gehitzea. Izan ere, naturarekiko harremana askoz ere horizontalagoa eta adeitsuagoa da herrialde horietan.

Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da ikuspegi berritzaile honi buruz gogoeta egitea eta barrutik lantzea erakundearen erabat barneratzeko, eta, beraz, jasangarritasunaren ikuspegitik naturaren eskubideen ikuspegira igarotzeko.

BARNE ANTOLAKETA

Bazkide diren GGKE-ek osatzen dute Batzar Orokorra, eta gutxienez urtean behin biltzen da, irizpide eta jardute-ildo nagusiak definitzeko. Goreneko gobernu-organoa da, eta, beste hainbat eginkizunen artean, hainbat nazioarteko guneeetan ordezkatzeko dituzten karguak hautatzen dira bertan.

Koordinakundeak Euskadiko lurralde historiko bakoitzean ordezkaritza bat du, eta bertan, lurraldearen egoitza daukaten GGKE-ek hartzen dute parte. Ordezkaritza bakoitzaren organo operatiboa Lurralde Batzarra da.

Gobernu Batzordea GGKE bazkideen talde mugatu batek osatzen du. Erakundearen organo exekutiboa da, eta jarduerak programatzen eta zuzentzen ditu, Batzar Orokorrek zehaztutakoaren arabera.

Lan-taldeak GGKE-ek osatzen dituzte, eta hainbat arlotan egiten dute lan kolektiboarentzat.

Koordinakundearen Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ordezkaritzetan, eta talde teknikoaren laguntzarekin, aipatutako guneeetan hartutako erabakiak gauzatzen dira, eta informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen dizkiegu GGKE-ei, erakundeei, euskal lankidetzaren agenteei eta herritarrei.

3

Aurrekariak

2001

2005-2009

Koordinakundean lehen estrategia-ildoak 2001ean diseinatu genituen; eta 2003an eta 2004an ebaluatu genituen. Lan horren ondorioz, 2005-2009ko I. Plan Estrategikoa onetsi genuen, 2005ean. Dokumentu horrek gaur egun indarrean dauden hiru jardute-ildo definitzen zituen, baina testuinguru ezberdinetara egokitzen joan dira.

2010-2013

Ondoren, 2009an, Koordinakundean 2010-2013ko II. Plan Estrategikoa onetsi genuen. Bide-orri horrek hainbat jardute-gune eta -ildo finkatu zituen, eta, lehentasunen artean, Euskadiko lankidetzaren lege berriaren esparruan finkatzearen beharra islatu zuen. Aldi berean, indartu egiten zuen jadanik profesionalizazio- eta teknifikazio-maila handira igaro zen sektore bat.

Krisi ekonomiko larriko urteetan zehar (2012-2016), Europar "herstura-politikak" deiturikoak ezarri zituzten. Horiek modu zehatz eta zuzenean eragin zuten euskal lankidetzan, murrizketa handien bidez. Horregatik, epe luzerako plangintza berria eratzeko lanketa-prozesu batean sartu beharrean, testuinguru zail eta ziurgabe horrek gelditzera eta hausnartzera behartu gintuen, baita sektorean egindako murrizketen eraginaren diagnostikoak egitera eta etorkizunerako estrategia berrietan pentsatzera ere.

2014-2017

Helburu horrekin, 2014an *Urrats bat gehiago* hausnarketa-prozesua hasi, eta 2017an amaitu genuen. Lan horrek azpimarratu zuen, batetik, erakundean giza garapen jasangarriaren ikuspegia finkatzeko beharra, pobrezia eta desberdintasunak ezabatzeko; bestetik, tokiko-mundu mailako ikuspegi batera igarotzeko beharra, begirada zabaltzeko eta problematikak elkarrekin erlazionatzen dituen errealitatearen ikuspegi holistikoagoa izateko. Gainera, beste agente eraldatzaileekin konplizitatea eta sinergiak bilatzearen premia adostu genuen, gure ekintzen bidez inpaktu handiagoa lortzeko eta borroka komunak bilatzeko. Era berean, azpimarratu genuen elkarrekin lotuta dauden problematiken erronka globalek erantzun koordinatuagoa izan behar dutela agente sozial eta eraldatzaileen aldetik, baita beste hainbat arloetatik ere, hala nola soziala edo sindikala.

Halaber, karga administratiboa sistemaren gabezia handia dela identifikatu genuen. Burokrazian galtzeak zaildu egiten du gure lana, ahuldu egiten ditu gure jarduteak beste agenteekin lan egiteko, eragotzi egiten du herritarrekin konektatzea, gure mezua transmititzea... lankidetzaren politikaren ikuspegia zabaltzea, alegia. Gainera, hauxe nabarmendu genuen: bermatu egin behar genuen lankidetzaren tresnak hobetzeak edo egokitzeak ziurtatuko zuela definitutako eta berretsitako aurrekontu-konpromisoak onartzea, Nazio Batuetan, Garapenerako Lankidetzari buruzko Euskal Legean, edo, ondoren berretsiak, Garapen Jasangarriko Helburuetan (GJH).

2018-2019-2020

Hausnarketa-prozesu horren ondorioetan oinarritu genuen, 2018an, Koordinakundearen hurrengo plangintza: 2019-2020ko Lan-egitasmoa. Baina COVID-19ak eragindako testuinguru pandemikoaren eta sektoreak izan dituen aldaketa anitzen ondorioz, egokia iruditu zitzaigun egitasmo hori ekitaldi bat gehiago luzatzea, 2021 arte, eta orduan beste plangintza-prozesu batekin hastea, berriro ere epe luzerako ikuspegiarekin.

2022-2030

2022-2030eko Plan Estrategiko hau da, hain zuzen ere, dokumentu honetan deskribatzen duguna.

4

Elaborazio- prozesua

Plan Estrategiko hau Koordinakundeak hainbat hilabetetan zehar egindako prozesu parte-hartzaile handi baten ondorioa da. Alde batetik, lan-taldeek saio zehatzak egin dituzte dokumentua sortzen laguntzeko. Gainera, lan-saioak egin ditugu GGKE bazkideekin: bata, 2021eko azaroaren 11n, Eginon, eta, bestea, 2022ko urtarrilaren 28an, Durangon.

Bestetik, elkarrizketatu egin ditugu lankidetzaren arloan nagusi diren zazpi euskal erakundeen arlo politiko edota teknikoan ordezkariek eta arduradunak, ikuspegia zabaltzeko eta kanpoko iritziak jasotzeko: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia-Eusko Jaurlaritza; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiak; eta Vitoria-Gasteizko, Bilboko eta Donostiako udalak. Gainera, bilera bat egin genuen 2022ko otsailaren 2an, Bilbon, Erakunde Arteko Komisioarekin, aipatutako zazpi erakundeek eta Koordinakundeak osatutako organoarekin.

Aipatutako gune horietatik guztietatik, honako ondorio hauek atera ditugu:

- Nazioarteko lankidetzaren eta solidaritatearen erronka izan behar da sinergiak, energiak eta elkarlana biltzen dituen apustua.
- Guztion artean ahalegina egin behar dugu herritarrengana iristeko. Horretarako, gure mezuak sinplifikatu, eta agente aktiboak izan behar dugu espektro sozialean hedatzen ari diren gorroto-mezuak deuseztatzeko.
- Koordinakundeak bultzatuz lezake eraldaketa sozialera eta mundu hobea baten eraketara batu nahi diren agente berriak hartzeko prozesua.
- Gizarte zibil antolatua ordezkaritza-agentea izaten jarraitu behar dugu, eta, beste hainbat tokitako agente sozialekin lankidetzan, eraldaketa sozialeko prozesuetara batu.
- Garrantzizkoa da berrikuntzaren alde egiten duen ehun sozial aberatsa indartzea.
- Gure erronkak honako hauek dira: herritarrei zer egiten dugun ulertaraztea, eraldaketa sozialerako estrategiak lantzea eta komunikazio-estrategia berritzaileen bidez kontzientzia kritikoa sortzea.

Informazio erabilgarria lortzen jarraitu behar dugu plangintza berria sortzeko, eta, horretarako, erakunde bazkideei inkesta bat egin diegu; hala jaso ditugu pertzepzio, proposamen, eskaera edo behar nagusiak, baita Koordinakundearekin daukaten asebetetze-maila ere. Lan horren bidez, honako ondorio hauek lortu ditugu:

- Sektoreak faltan du eragiteko gaitasun handiagoa, ez bakarrik politikan, baita gizartean ere: garrantzi handiagoa daukagula nabaritzea.
- Herritarrekin lotura handiagoa izan behar genuela zehaztu zuten.
- GGKE-en artean eta beste agente batzuekin sinergiak finkatzeko ahalegin handiagoak egiteko beharra adierazi zuten.
- Ehun sozial aberats baten garrantzia azpimarratu zuten, eta uste zuten Koordinakundeak GGKE txikiei emandako laguntza erraztea aztertu daitekeela, GGKE handiei eta txikiei eskatzen zaien parte-hartzea desberdindu. Ildo berean, erakunde batzuek nabarmendu zuten Koordinakundearen parte hartzeko gaitasun handiagoa izan nahi luketela.
- Halaber aipatu zuten helburu komunak identifikatu eta horietan eragina zentratzearen beharra.
- Azpimarratu zuten ahalegin handiagoa egin behar genuela, Koordinakundearen euskarak presentzia handiagoa izan zezan.
- Inkestari erantzun dioten pertsonen asebetetze-mailaren aldetik, honako hau nabarmendu zuten: % 12k asebetetze-maila oso altua zeukan, % 30ek asebetetze-maila ertaina, eta % 4k maila oso baxua.
- Hobetzeko oharretan eta iradokizunetan, honako gogoeta hauek nabarmenduko ditugu:

-Erantzun positibo eta zorion-mezu ugari jaso genituen. Halakoak eskertzen ditugu itxaropen- eta motibazio-giroa eratzeko, batez ere erakundearen etorkizuna marraztu nahi den unean.

-Hainbat pertsonaren parte-hartzea zoriondu eta goraiatu zuten, ikuspegi kolektibo eta sektorearekikoa izanik, Koordinakundearekin modu aktiboan parte hartzen baitute. Egiten ditugun jardueren kopurua goraiatu zuten, halaber, eta talde teknikoaren parte-hartzearen garrantzia azpimarratu.

-Ikuspegi kritikoago batetik eragiteko gaitasun handiagoa izatea eskatu zuten, eraldaketa soziala eragiteko hezkuntzari pisu handiagoa ematea eta GGKE berri edota txikiei laguntza gehiago ematea.

Azken finean, deskribatutako barne- eta kanpo-ekimen guztien helburua izan da informazio garrantzitsu eta interesgarria lortzea modu parte-hartzailean, 2022-2030eko Plan Estrategikoa egiten laguntzeko.

5

2022-2030eko Plan Estrategikoa

Koordinakundearen helburu orokorra da erreferentziazko agentea izatea solidaritatean, erantzunkidetasunean eta justizia globalean. Horretarako, sendotu egingo da, genero-ekitatearekin, Koordinakundearen zeregina, batetik, giza garapen jasangarriarekin koherenteak diren politika publikoen diseinu eta laguntzan, eta, bestetik, gizarte zibilaren eta bestelako agenteen sustatzaile moduan daukanarekin.

Zehazki, 2022-2030eko Plan Estrategiko honek 3 erronka estrategiko ditu, eta horiek 12 helburutan zehazten dira, bakoitzari dagozkien ekintza-ildo, adierazle eta kronogramekin. Aipatu beharra dago, zortzi urterako plangintza denez, edukiak oso orokorrak direla. Horregatik, zehaztasun handiagoa eramango dute arloek, lan-taldeek eta biltzarrek egindako bi urteko plan operatiboek, baita erakunde finantzatzaileekin izandako negoziazio aldebikoen bidez egindakoek ere.

Ondoren, 3 erronka eta 12 helburu horien eskema dugu, eta aurrerago azalduko ditugu zehatzago:

ERRONKA ESTRATEGIKOA

01

Euskal lankidetzaren konprometituaren alde eragitea, eraldaketa sozialera, justizia globalera eta giza eskubideetara bideratuta dagoena

02

Eraldaketa sozialerako lan egitea

03

Sektorea indartzea

HELBURUAK

- 1.- Erreferentziarako agentea izatea lankidetzaren politikaren defentsan.
- 2.- Giza garapen jasangarriarekin koherenteak diren politikak bultzatzea.
- 3.- Beste harreman-esparru orokor bat eratzea, ikuspegi zabal eta anitza daukan lankidetzaren eraldatzailea antolatzen (mugimendu feminista, ekologista...).
- 4.- Lankidetzaren politikarentzat beharrezko aurrekontu-zuzkiduran sakontzen jarraitzea.

-
- 1.- Justizia soziala lortzeko, mobilizatuta dagoen herritar kritiko eta parte-hartzaileak bultzatzea.
 - 2.- Hezkuntza oinarri izatea, eraldaketa sozialean kontzientzia kritikoa eratzeko hezkuntza formalean, ez-formalean eta informalean.
 - 3.- Eraldaketa sozialerako hezkuntzaren sustapenean lan egiten jarraitzea, GGKE-en artean eta bestelako agente estrategikoekin.

- 4.- GGKE-en lana eta lankidetzaren ikusgai egitea eta ezagutzera ematea komunikazioaren bitartez, eraldaketa sozialari egiten dieten ekarpenei garrantzia emateko.

-
- 1.- Koordinakundearen identitatearekiko eta iraunkortasunarekiko konpromisoa finkatzea.
 - 2.- Bazkide diren GGKE-en arteko antolakuntza hobetzea.
 - 3.- Kudeaketa eta jasangarritasun ekonomikoa.
 - 4.- Ezagutza eta posizionamendu eraldatzaileetan sakontzea.

ERRONKA ESTRATEGIKOA

01 Euskal lankidetzaren konprometituaren alde eragitea, eraldaketa sozialera, justizia globalera eta giza eskubideetara bideratuta dagoena

30 urte baino gehiagoko historian, Koordinakundeak, eraginean zentratu dugu gure lanaren eta jardueraren zati handi bat, kalitatezko politika publiko finkoa, sendoa eta eredugarria lortzeko lankidetzaren arloan. Beti hobetzeko tarteak badago ere, bidezkoa da aurrerapen eta lorpen nabarmenak aitortzea.

Euskal lankidetzaren politikak aitortzen eta eragin handia dauka. Izan ere, eredu horrek sareak sortzen ditu gure ekintzak egiten ditugun herrialdeen mugimenduekin, eta gizarte zibila antolatzen du, injustiziak eratzten dituen sistemarekin kritikoa.

Hala eta guztiz ere, batzuetan, badirudi euskal lankidetzaren ez dagoela eztabaida politikoko garrantzitsuetan. Horregatik, inoiz baino beharrezkoagoa da ehun sozial sendo eta antolatua eratzeko, kontuan izanik gaur egungo testuinguruan munduko gatazkek, polarizazioak eta estremismoek duten goranzko joera arriskutsua gero eta handiagoa dela. Ehun sozial horrek kontzientzia kritikoa eratu behar du, eta gure ordezkari politikoaren guneetan gogorarazi behar du garrantzitsua dela pertsona oroaren giza eskubideak modu ukaezinean eta inolako aitzakiarik gabe defendatzea.

ERRONKA ESTRATEGIKOA

01

Euskal lankidetzaren konprometituaren alde eragitea, eraldaketa sozialera, justizia globalera eta giza eskubideetara bideratuta dagoena

HELBURUA

1.- Erreferentziako agentea izatea lankidetzaren politikaren defentsan.

Koordinakundearen erreferentziako erakunde bultzatzailea izan nahi dugu lankidetzaren politikaren hobekuntza iraunkorrean. Horretarako, lan egingo dugu parte hartzeko eta erabakiak hartzeko guneetan daukagun eragina handitzeko, ekarpenak eginez, eta eginkizun aktibo eta proposatzailea izanda.

Ekintza-ildioak	Adierazleak	Kronograma
1.1.- GGKE-en sektoreko ahotsaren erreferentziako solaskidea izatea (modu berritzailean, gaien bultzatzailea izanik, araudi-sare osoan...).	Euskal lankidetzaren eraldatzailearen lehentasunak eta espezifikotasunak definitu eta aurkeztu dokumentu zehatzetan.	Planak iraun bitartean.
	Lankidetzaren politika hobetzen dituzten proposamenak eta posizionamendu berritzaileak urtero aurkeztu (adostasunezkoak edo desadostasunezkoak).	Plan honen inplementazioaren hasieran.
	Testuinguruko problematikari buruzko taldeko hausnarketa-mekanismoak edota -guneak aktibatu (babes-krisia, burokratizazio handia, testuinguru politiko bortitzak...).	Planak iraun bitartean.
	Ekarpenak egin deialdi, baliabide, aurrekontu, plan eta abarri.	Deialdi, dekretu, etab. berriak ateratzen direnean.

ERRONKA ESTRATEGIKOA

01 Euskal lankidetzaren konprometituaren alde eragitea, eraldaketa sozialera, justizia globalera eta giza eskubideetara bideratuta dagoena

HELBURUA

1.- Erreferentziazko agentea izatea lankidetzaren politikaren defentsan.

Ekintza-ildoak	Adierazleak	Kronograma
1.2.- Parte-hartzea garatu gune formaletan, eta ekarpenak egiteko gaitasuna izatea araudi eta baliabide-zerrenda osoari.	Koordinakundeari esleitutako plaza guztiak bete, gune parte-hartzaileetan.	Plaza hutsak azaltzen direnean.
	Gune parte-hartzaileetan daukagun eragina hobetzeko neurriak proposatu, kontsultarako izatetik lotesleak eta erabakitzaileak izatera igarotzeko, eta parte-hartzearen kalitatea hobetzeko.	Epe ertainera.
	Genero-ekitateari eta lankidetzaren feministarekiko konpromisoari buruzko ekarpenak egin euskal lankidetzaren politikaren parte diren dokumentu instituzionalei.	Jarduera jarraitua.
1.3.- Plan honetan bildutako zeharkako ikuspegiak gure posizionamendu publiko guztietan sartzea, eta, horretarako, garrantzia ematea erreferentzia izaten jarraitzeari generoaren / feminismoaren ikuspegiaren inplementazioan.	Prestakuntzak, mintegiak, trebakuntzak, eta hausnarketa- eta eztabaida-guneak egin, naturaren eskubideen ikuspegia kontuan hartzeko.	Plana martxan jartzen denean hasiko den jarduera.
	Genero-politika / politika feminista berriaren bidez, gune hau finkatzearen garrantzia azpimarratu, sektorean erreferentzia izateko.	Politika berria martxan jartzen eta lankidetzaren feministaren ikuspegia barneratzen denean. 2023-2024tik aurrera egingo da.

ERRONKA ESTRATEGIKOA

01 Euskal lankidetzaren konprometituaren alde eragitea, eraldaketa sozialera, justizia globalera eta giza eskubideetara bideratuta dagoena

HELBURUA

2.- Giza garapen jasangarriarekin koherenteak diren politikak bultzatzea.

Koordinakundea erakunde aurrekaria izan zen politika koherenteak erreklamatzeko orduan. Argi zuen ezin zirela lankidetzaren estrategia eraldatzaileak martxan jarri, gainerako gobernu-ekintzatik erabat deskonektatuta bazeuden. Lehen urratsetatik gaur egun arte, asko sakondu eta garapen handia egon da. Orain, gainera, GJHen baliabidea daukagu. Tresna aproposa izan daiteke, giza garapen jasangarriarekin koherenteak diren politiketan sakontzeko.

Ekintza-ildoak	Adierazleak	Kronograma
2.1.- Politiken koherentziaren lan-ildoan sakondu eta hura finkatzea, euskal erakunde-sarean proposatzaileak izan daitezen; aldi berean, beste hainbat gunetan gure presentzia bermatzea.	Argudioak, intsumoak eta ikerketak, garapenerako politiken koherentzian proposamenak helarazteko.	Plana martxan jartzen denetik.
	Zazpi euskal erakunde nagusiek garapenerako politiken koherentziari buruzko txostenak igortzeko kolaboratu.	2022tik aurrera, baina erakundeen erritmora egokituz.
	Erakunde bakoitzean guneak sortu gai horri heltzeko.	Sortzeko instantzia 2022an edo hurrengo urteetan antolatuko da.
	Tailerrak, topaguneak, bilerak eta guneak, erakundeei proposamenak aurkezteko.	2022-2023.
	Lankidetzaren arlotik kanpoko hausnarketa- eta eztabaida-gunetan presentzia bermatu.	Foro horietan gure presentzia bermatu dezakegu, urtero edo bi urtean behin.

ERRONKA ESTRATEGIKOA

01

Euskal lankidetzaren konprometituaren alde eragitea, eraldaketa sozialera, justizia globalera eta giza eskubideetara bideratuta dagoena

HELBURUA

2.- Giza garapen jasangarriarekin koherenteak diren politikak bultzatzea.

Ekintza-ildoak	Adierazleak	Kronograma
2.2.- Bestelako agenteekin bat egitea, 2030 Agendaren eta GJHen esparruan, garapenerako politiken koherentziarako tresnak izan daitezten.	Gure presentzia bermatuta dago 2030 Agendaren gaietara heltzeko guneetan (Hirugarren Sektoreko Maila Handiko Foroa, Haurtzaroaren Batzordea, nazioarteko agenda feminista...).	Egiten ari gara, eta ildo berean jarraituko dugu.
	Gutxienez gune berri bat sortuta, sektore pribatuarekin lankidetzarako estrategia nola lor daitekeen eztabaidatzeko.	Epe ertainera.

ERRONKA ESTRATEGIKOA

01 Euskal lankidetzaren konprometituaren alde eragitea, eraldaketa sozialera, justizia globalera eta giza eskubideetara bideratuta dagoena

HELBURUA

3.- Beste harreman-esparru orokor bat eratzea, ikuspegi zabal eta anitza daukan lankidetzaren eraldatzailea antolatzeko (mugimendu feminista, ekologista...).

Esparru horretan, Koordinakundea eraldaketa-agentea da kolektibo askotariko baten asmoak eta jakintzak batzeko; pentsamendu-eskema tradizionalak hautsi, eta gai izan behar dugu ikuspegi eta planteamendu berritzaileekin lan egiteko.

Ekintza-ildoak	Adierazleak	Kronograma
3.1.- Gure ordezkariak bermatzea beste agente batzuekin (mugimendu feminista, ekologista...), erabakiak hartzeko eta eztabaidatzeko, bazkide diren erakundeen lan-arloaren eta espezifikotasunaren bidez.	Beste agente batzuekin erabakiak hartzeko eta eztabaidatzeko guneetan parte hartzea.	Planak iraun bitartean.
	Lankidetzaren feministaren ikuspegia antolatzeko moduari buruzko trebakuntzak, tailerrak eta topaketak.	Plana martxan jartzearekin batera egindako lehen jarduerak.
	Koordinakundearen dokumentuetan txertatu ingurumenaren ikuspegiaren trantsizioa naturaren eskubideen ikuspegiarekiko.	Prozesu honek planak iraun bitartean iraungo du, hainbat intentsitate eta egokitasunari buruzko bitarteko ebaluazio batekin.
3.2.- Eztabaida sozialak aberasten dituzten estrategiak, pentsaerak eta hausnarketa alternatibo eta berritzaileak identifikatzea, lantzea, eta horietan sakontzea.	Saiakera, teoria edo garapenerako proposamen berritzaileak partekatu (lankidetzaren feminista, naturaren eskubideak, donut-ekonomiaren teoria, ekoizpen- eta kontsumo-eredu alternatiboak...).	Illo irekia da, eta, plana martxan jartzen dugunetik, horretan sakondu nahi dugu.

ERRONKA ESTRATEGIKOA

01 Euskal lankidetzaren konprometituaren alde eragitea, eraldaketa sozialera, justizia globalera eta giza eskubideetara bideratuta dagoena

HELBURUA

4.- Lankidetzaren politikarentzat beharrezko aurrekontu-zuzkiduran sakontzen jarraitzea.

Aurrekonturik gabe ez dago politikarik. Inplementazioa ahalbidetzen duen aurrekontu-zuzkidurarik ez badago, egingo dugun guztia asmo-deklarazio hutsean geratuko da. Koordinakundeak eskatzen jarraitu behar du nazio errenta gordinaren (NEG) % 0,7 lankidetzaren politiketarako betetzen dela.

Ekintza-ildoak	Adierazleak	Kronograma
4.1.- Lankidetzaren politikaren aurrekontu-zuzkiduraren garrantzia nabarmentzea, % 0,7ko esparrua galdu gabe, baina herritarrekin hobeto konektatu eta erakundeen arteko aliantza handiagoa izango duten estrategia eraikitzaileagoen eta berritzaileagoen alde eginez. Arau-esparruez, estatu-mailako Lege berriaz, Euskal Legeaz... baliatzea, % 0,7aren gaia modu ahalik eta estrategikoenean sozializatzeko.	Euskal erakundeetan nabarmen handitu portzentajearen aurrekontu-zuzkidura, urtero.	Planak iraun bitartean.
	Euskal erakundeek banaketarako kalkulu-formula bat ados dezaten bultzatu.	Epe ertainerako aurreikusitako jardura.
4.2.- Koordinakundearen lan-ildoak beste eztabaidetara irekitzea, hala nola fiskalitate progresiboa herrialdeetan (nazioarteko fiskalitatea, nazioz haraindikoei zergak ezartzea, paradisu fiskalak, kanpo-zorra, Tobin tasa, zerga-eragozpena, gastu militarra murriztea, armen kontrola, osasunerako gastu publikoa, hezkuntza...).	Formakuntza- eta hausnarketa-guneak eratu horretarako.	Epe ertainerako aurreikusitako jardura.

02

Eraldaketa sozialerako lan egitea

Injustiziak eta desberdintasunak sortzen dituen sistema bidegabe bat eraldatu nahi dugu. Sistema horrek zapalduta dauden masa handien rola iraunarazten ditu, eta automaten antzera eramaten gaitu erantzutera eta eredu hori errepikatzen. Baina uste dugu pentsamendu kritikoaren eta kontzientzia hartzearen gakoetako bat izan behar dugula, eta baieztatu egiten dugu hezkuntza eraldaketa sozialerako eragilea dela. Eragile horrek, izan ere, izugarrizko potentziala dauka, eta eraldaketa sozialaren zerbitzuan jarri eta ustiatu behar dugu.

Gure ustez, komunikazioa istorio berri bat sortzeko aukera anitz eskaintzen dizkigun tresna da, eta horren bidez itxaropena eta alternatiba eskaintzen saiatu behar dugu, inor atzean geratzen ez dela bermatzeko.

ERRONKA ESTRATEGIKOA

02

Eraldaketa sozialerako lan egitea

HELBURUA

1.- Justizia soziala lortzeko, mobilizatuta dagoen herritar kritiko eta parte-hartzaileak bultzatzea.

Hezkuntza eraldatzailearen gakoetako bat da tresna, trebetasun eta baliabide zehatzak ematea, herritarrak mobilizatzeko eta eragin sozial eta politikoa izateko, eta, beraz, erronka globalen aurrean aldaketarako subjektu aktiboak bihurtzeko. Mobilizazio-bideak etengabe aldatzen ari direnez, estrategia berriak diseinatu behar ditugu herritarrengana iristeko (batez ere gazteengana).

Ekintza-ildoak	Adierazleak	Kronograma
1.1.- Sektore moduan ekintza koordinatuak bultzatzea eraldaketa sozialerako hezkuntzaren arloan, biztanleria osoari zuzendutakoak, hausnarketa sortu nahi dugun gai estrategikoei buruz (Mundu zabala errealitate anitz, Gasteiz Konexioan, jardunaldiak...).	Urtero, sentsibilizazio- edota salaketa-jarduerak egin.	Planak iraun bitartean.
	Jardunaldiak egin; bertan, tokiko-mundu mailako esparruari helduko diogu bereziki.	Planak iraun bitartean.
1.2.- Plataformekin eta mobilizatzea ahalbidetzen diguten kolektiboekin daukagun koordinazioa eta bateratzea finkatzea (Zero Pobrezia, arrazakeriaren aurkako martxa, mugimendu feminista, mugimendu ekologista...).	Mota horretako jarduerak antolatu edota haietan parte hartu, urtero.	Planak iraun bitartean.
1.3.- Sektoreko oinarri soziala gaztetzeko ekintzak martxan jartzea.	Gazteentzat bereziki egindako ekintza-ildo bat antolatu.	2022an lantzen hasiko dugun ekintza-ildo berria da.

ERRONKA ESTRATEGIKOA

02

Eraldaketa sozialerako lan egitea

HELBURUA

2.- Hezkuntza oinarri izatea, eraldaketa sozialean kontzientzia kritikoa eratzeko hezkuntza formalean, ez-formalean eta informalean.

Ibilbide handia dauka GGKE-ek ikastetxeekin eta unibertsitateekin eraldaketa sozialerako hezkuntzan egiten duten lanak, eta Koordinakundea osatzen duten erakundeen muinera iristen da. Helburu honek lan antolatu hori sendotzearen alde egiten du. Izan ere, gune horiek funtsezkoak dira gizarte informatu, sentsibilizatu eta proposatzailea lortzeko eta, beraz, eraldaketa sozialerako.

Ekintza-ildoak	Adierazleak	Kronograma
2.1.- Koordinakunde gisa daukagun eginkizun biltzailean sakontzea, estrategietan, sinergien baturan eta hezkuntza-arloko erakundeen lan eta zereginen arteko koordinazioan (zuzeneko gauzatzetik koordinazioa erraztera).	Urtero eguneratu bazkide diren Hezkuntza-baliabideen katalogoa.	Planak iraun bitartean.
	Unibertsitatearekin, ikastetxeekin... lan-guneak finkatu.	Planak iraun bitartean.
2.2.- Hezkuntza-agenteengan eragina izatea, erakunde aliatuen bidez eraldaketa soziala ahalbidetuko duen hezkuntzaren ikuspegia txertatzeko, hezkuntza formalean eta ez-formalean.	Parte hartu tailerretan, topalekuetan, eta hausnarketarako eta eztabaidarako heziketa-guneetan, eraldaketa sozialerako hezkuntza heziketaren sektorean kokatzeko.	Epe ertainerako aurreikusitako jarduera.
	Genero-ikuspegia edo ikuspegi feminista sartu Koordinakundeak bultzatutako eraldaketa sozialerako hezkuntza-jarduera guztietan.	Epe ertainera, ikuspegia sektorean integratzen denean.

ERRONKA ESTRATEGIKOA

02

Eraldaketa sozialerako lan egitea

HELBURUA

3.- Eraldaketa sozialerako hezkuntzaren sustapenean lan egiten jarraitzea, GGKE-en artean eta bestelako agente estrategikoekin.

GGKEok funtsezko eginkizuna daukagu eraldaketa sozialerako hezkuntza bultzatzen, baina ezin dugu modu isolatuan lan egin. Gero eta argiago daukagu ikuspegi intersektional batetik lan egin behar dugula. Helburu honek agenden, proposamenen eta erakundeen elkarrekiko loturan sakondu nahi du, nahi dugun eraldaketa horretan aurrera egiteko ezinbesteko bide moduan.

Ekintza-ildoak	Adierazleak	Kronograma
3.1.- Bazkide diren erakundeen arteko koordinazioan eta osaketan sakontzea, gai honetan egiten ditugun ekintzen eragina handitzeko.	Jakintza partekatu, GGKE-en arteko formazioaren eta abarren bidez.	Planak iraun bitartean.
3.2.- Koordinazioa eta aliantza sendotzea edota indartzea gure sare propioekin, hirugarren sektoreko edo bestelako mugimendu sozialekin.	Agenda globalari lotutako sareetan / plataformetan / ekimenetan presentzia egonkorra daukagula bermatu (mugimendu feministan, ekonomia sozial eta solidarioko mugimenduan, mugimendu ekologistan...).	Planak iraun bitartean.
	Aipatutako sareetan gure presentzia bermatu.	Planak iraun bitartean.
	Agente ez tradizionalekin partekatutako lankidetzaguneen egokitasuna aztertu.	Epe ertainera.

ERRONKA ESTRATEGIKOA

02

Eraldaketa sozialerako lan egitea

HELBURUA

4.- GGKE-en lana eta lankidetzaren ikusgai egitea eta ezagutzera ematea komunikazioaren bitartez, eraldaketa sozialari egiten dioten ekarpenei garrantzia emateko.

Komunikazioa funtsezko tresna da gizartearen eraldatzeko. Aldaketa sozialerako komunikazio-paradigma horretatik, hain zuzen ere, Koordinakundearen komunikazio-ekintzak egiten ditugu injustiziak eta giza eskubideen urratzeak salatzeko, testuinguru globalean eta tokikoan pobrezia eta desberdintasunak eragiten dituzten kausei buruz jakinarazteko, eta herritarrengan solidaritatean eta justizia sozialean oinarritutako kultura bultzatzeko. Helburu horiekin, uste dugu ezinbestekoa dela komunikabideen eta kazetarien parte-hartze aktiboa, herritarrengana iristeko eta haien kezkekin (bir)konektatzeko.

Ekintza-ildoak	Adierazleak	Kronograma
4.1.- Ikusgai egitea bereziki GGKE-en lanaren eragina, eta lankidetzarena orokorrean, baina baita zer zeregin duen eraldaketa sozialean ere, horren garrantzia azpimarratzeko.	Edukiak, kanpainak, ekimenak eta komunikazio-ekintzak garatu baliabide berritzaileen eta komunikabideen bidez, GGKE-en lana bistaratzeko, eta sentibilizatzeko eta eraldaketan laguntzeko.	Planak iraun bitartean.
	Komunikazio-tresna erabilgarriak indartu, eta, beharrezkoa balitz, bide berriak ireki.	Planak iraun bitartean.
	Komunikazio-mugarriak gauzatu, GGKE-ek egiten duten lana bistaratu, eta jendartea sentibilizatzeko. Koordinakundearen 40. urteurrena.	40. urteurrena, 2028an, eta aurreko kanpaina osoa.

ERRONKA ESTRATEGIKOA

02

Eraldaketa sozialerako lan egitea

HELBURUA

4.- GGKE-en lana eta lankidetzak ikusgai egitea eta ezagutzera ematea komunikazioaren bitartez, eraldaketa sozialari egiten dioten ekarpenei garrantzia emateko.

Ekintza-ildoak	Adierazleak	Kronograma
4.2.- Komunikabideak (bai tradizionalak, bai berritzaileagoak) eraldaketa sozialeko agente moduan.	Gure presentzia handitu sare sozialetan, baita bestelako komunikabide tradizionalagoetan ere (iritzi-artikuluak, prentsa-oharrak...).	Planak iraun bitartean.
4.3.- Komunikazioaren bidez, Koordinakundearen helburu orokorra (3. erronka) lortzen laguntzea. Helburu horren xedea da herritarrekin eta bere kezkekin (bir)konektatzen lagunduko duen diskurtso eskuragarri eta ulerterrazagoa eraikitzea.	Komunikazioaren arloari dagokionez, ekintza-ildo hau lortzeko guneak eskaini.	Epe laburrerako plana martxan jartzen denean.
4.4.- Koordinakundearen irudia eraberritzea, herritarrengana hobeto eta errazago iristeko.	Gure irudi korporatiboa eguneratu webgunean.	2022-2023.

03

Sektorearen indartzea

Lankidetzeta-politika publiko eta egonkorra lortzea (1. erronka) eta eraldaketa sozialerako lan egitea (2. erronka) posiblea izango da soilik, baldin eta sektore sendoa, mobilizatua eta desberdintasunekiko, pobreziarekiko eta giza eskubideekiko sentikorra badaukagu, eta gai izango da presioa egiteko eta salatzeke, eta aldaketak lortzeko proposamenak eta alternatibak eskaintzeko.

Halaber, ezinbestekoa da GGKEak sendotzen jarraitzea beren gaitasun tekniko eta politikoetan, eta gure erakundearen barnealderantz begiratzea ere bai, lankidetzaren sektorean gaurko eta etorkizunerako aurreikusten diren erronka guztiei aurre egiteko,

Horretarako, bazkide diren GGKE-ei baliabideak, ikuspegiak eta mekanismoak eskaintzen jarraituko dugu, beren lanean laguntzeko eta bai sektorea, bai haien esku-hartzeak sustatzeko. Erakundeen arteko antolamendua eta elkarrekiko laguntza sustatzen jarraituko dugu, sektorearen jasangarritasun ekonomikoa hobetzeko bideak behatuko ditugu, eta posizionamendu berritzaileetan sakonduko dugu, besteak beste. Gainera, erakundeekin batera, Koordinakundearen proiektu komuna eraikitzen jarraituko dugu, bertako parte izatearen sentimendua indartuz eta parte-hartzea bultzatuz, bestelako ekintza-ildoen artean.

ERRONKA ESTRATEGIKOA

03 **Sektorearen indartzea**

HELBURUA

1.- Koordinakundearen identitatearekiko eta iraunkortasunarekiko konpromisoa finkatzea.

Koordinakundearen funtsezko balioa da erakundeen sarea izatea; hots, sektore heterogeneo baten aniztasuna biltzen duen erakundea da, baina printzipio komun sendoekin. Alde horretatik, erakundearen daukagun erronka nagusienetarikoa bat honako hau da: ahots guztiak entzutea, parte hartzeko guneak eskaintzea, eta nor garen eta gure ekintza norantz bideratu nahi dugun sakonki eztabaidatzen hastea.

Ekintza-ildoak	Adierazleak	Kronograma
1.1.- Zaintza zeharkakoa egitea (jazarpen-protokoloari jarraipena egitea, sarrera berriei harrera egitea, ikuspegi berriak hartzea...).	Parte-hartzeko mekanismo modularrak ezarri, formakuntzarako, problematikak partekatzeko, lan-jardunbide egokietarako... (aurrez aurrekoak zein on line).	Planaren iraunaldi osorako.
	Printzipio horren inguruan tailerrak, formakuntzak eta eztabaidak egin.	Plana 2022an inplementatzen hasten denetik.
	Genero-politika berria, lankidetzaren feministaren ikuspegira igarotzeko.	Politika berria, 2023rako.

ERRONKA ESTRATEGIKOA

03 **Sektorearen indartzea**

HELBURUA

1.- Koordinakundearen identitatearekiko eta iraunkortasunarekiko konpromisoa finkatzea.

Ekintza-ildoak	Adierazleak	Kronograma
1.2.- Koordinakundearen proiektu komunaren eraketan, GGKE batzuen parte-hartzea mugatzen duten kausak edo baldintzatzaileak identifikatzea, hura bultzatzen duten bideak edo proposamenak sustatzeko.	Erakundeen parte-hartzea kontabilizatzeke formulak berritu, gune tradizionaletik haratago (taldeak, ordezkari-tza-guneak...).	Planaren lehenengo bi urteetan zehar.
	Ekintza-ildo zehatza ireki GGKE txikientzat edo laguntza espezifikoagoa behar dutenentzat.	2023tik aurrera.
	Formakuntza-guneak antolatu; bat, gutxienez, elkarrengandik ikasteko izango da.	2022 eta 2023 artean.
1.3.- Euskararen presentzia handiagoa zaintzea eta bultzatzea.	Koordinakundearen Euskara plana martxan jarri.	2022 eta 2023 artean.
1.4.- Barne-koherentzia antolatzea (jarraibide eta irudi kodea jarraitzea...).	Koherentziarako Komisia (edo antzeko guneak) martxan jarri.	Epe ertainera.

ERRONKA ESTRATEGIKOA

03 **Sektorearen indartzea**

HELBURUA

2.- Bazkide diren GGKE-en arteko antolakuntza hobetzea.

Koordinakundean, beste hainbat arlotan bezala, gure lana sailkatzearen akatsa egiten dugu. Askotan eskatu dugu gune, gai-eremu edota lan-taldeen arteko elkarrekintza, eta horretarako hainbat pauso eman ditugu jadanik. Helburu honen bitartez, asmo horretan sakondu eta hobetu nahi dugu.

Ekintza-ildoak	Adierazleak	Kronograma
2.1.- GGKE-en arteko sinergiak sustatzea, batera egiteko ekintzak koordinatuz eta trukerako guneak eskainiz.	GGKE-en arteko komunikazio-jario egonkorak sortu.	Urtero, planak iraun bitartean.
2.2.- Ikuspegi feminista zeharkakoa egitea, genero-taldetik haratago, arlo horretan erreferenteak izaten jarraitzeko.	Koordinakundeko lan-taldeen arteko lotura-sistemak antolatu dira, Koordinakundearen genero-politikak aurreikusten duen ildo jarraituta.	Planak iraun bitartean.
2.3.- Koordinakundeko lan-taldeen arteko elkarrekiko erlazioa, beharbada mekanismo bizkorak aktibatuz informazioa helarazteko.	Koordinakundearen lan-taldeen arteko elkarlanerako eta elkartzeko guneak ezarri.	Planak iraun bitartean, edo gune edo kanal espezifikoen bidez.
2.4.- Sektorearen lan-baldintza egokiak bermatzen dituzten jasangarritasun-mekanismoetara aurrera egitea.	Abiapuntutzat daukagun errealitatearen mapaketa egin, ekintza gehiago inplementatzeko.	Bi urtean behin.
	Laguntza-estrategia bat sortu.	Planaren lehenengo fasean (2022-23).

ERRONKA ESTRATEGIKOA

03 **Sektorearen indartzea**

HELBURUA

3.- Kudeaketa eta jasagarritasun ekonomikoa.

Oinarritzat hartuta politika publikoan zilegi dela funts publikoen bitartez finantzatzea, baita lege bidez ere, ezin ditugu alde batera utzi horrek praktikan dakarren baldintzatzailea eta eredu misto baterantz aurrera egiteak ekarriko lukeen autonomia. Horretan oinarrituko da, funtsean, helburu hau.

Ekintza-ildoak	Adierazleak	Kronograma
3.1.- Sektorearen finantzaketa-iturrien balizko dibertsifikazioa aztertzea, gutxietsi gabe politika publikoaren funtsak kudeatzeak daukan zilegitasunaren abiapuntua.	Jasagarritasun ekonomikoari eta erakundeen kudeaketari buruzko tailerrak egin.	Epe labur eta ertainera.
3.2.- Ekintza-ildo berria irekitzea Europar Batasunaren esparruan.	Funts europarretara heltzeko aukera ikertzearekin zerikusia daukan formakuntza bat, gutxienez, irakatsi.	Epe labur eta ertainera.

ERRONKA ESTRATEGIKOA

03 **Sektorearen indartzea**

HELBURUA

3.- Kudeaketa eta jasagarritasun ekonomikoa.

Ekintza-ildoak	Adierazleak	Kronograma
3.3.- Koordinakundea izatea formakuntza- eta zerbitzu-bideratzaile erakundeentzat, baita jasagarritasunarekin eta kudeaketarekin zerikusia daukaten gaietan ere.	Aholkularitza, laguntza... eskaini.	Plana martxan jartzen denetik.
	GGKE-en eguneroko kudeaketan laguntzeko guneak / formakuntzak / tailerrak eskaini, kudeaketarekin zerikusia daukaten legeen / araudien aldaketei eta egokitzapenei aurre egiteko.	Plana martxan jartzen denetik.
	Bazkide diren GGKE-en eguneroko kudeaketa hobetzeko baliabideak edota praktika egokiak partekatu.	Planak iraun bitartean.
3.4.- Boluntariotzak sektorean orokorrean eta Koordinakundean bereiziki daukan balio "ukiezina" kontabilizatzea do "monetizatzea".	Kide diren erakundeek Koordinakundeari eskaintzen dioten balioa eta denbora jasotzeko irizpide objektiboak ezarri.	2023-2024.

ERRONKA ESTRATEGIKOA

03 **Sektorearen indartzea**

HELBURUA

4.- Ezagutza eta posizionamendu eraldatzaileetan sakontzea.

Uste dugu Koordinakundea sorburu izan daitekeela (eta hala eskatu izan zaio, halaber, gune askotan), pentsatzeko, teoria berriak eta korronte ideologikoak erakartzeko, indarrean dagoen ereduari alternatibak eskaintzeko, etab; horiek gure ekintzari koherentzia- eta berrikuntza-esparrua emango diote.

Ekintza-ildoak	Adierazleak	Kronograma
4.1.- Nahi dugun lankidetzareduari buruz, eremu guztietatik eta modu koordinatuan hausnartzeko eta birpentsatzeko abiada ematea.	Bazkide diren erakundeen arteko hausnarketarako eta eztabaidarako guneak sortu lankidetzaren etorkizunari buruzko hausnarketa bermatzeko.	Epe ertainera.
	Barne-koordinaziorako mekanismoak birdefinitu, hainbat arlotan ikuspegi integralagoa eta ez hain sailkatua daukan Koordinakundea lortzeko.	Planak iraun bitartean.
4.2.- Plan honetan onartutako ikuspegi berriak gure egitea (lankidetzaren feminista, naturaren eskubideak), gure diskurtsoak modu berritzailean elikatzen dituzten pentsamendu alternatiboaren erreferentziak bilatzen diren aldi berean.	Identifikatu gure ikuspegia aberasten duten eta sektorearen zerbitzuan jartzen diren mezuak, pentsamenduak eta korronteak.	Epe ertainera.
4.3.- Lankidetzarako diskurtso berri baten aurkezpena.	Diskurtso berria aurkeztu.	Epe ertainera.

6

Ebaluazioa

Lehen aipatu bezala, etorkizun luzea aurreikusten du Plan Estrategiko honek. Horregatik, Koordinakundeari esparru nahiko orokorra eman nahi dio. Hala eta guztiz ere, zehatzago egingo dute lan-taldeek eta batzarrek egindako bi urteko plan operatiboek, baita erakunde finantzatzaileekin izandako negoziazio aldebikoen bidez egindakoek ere.

Bestalde, 2026-2027rako aurreikusi dugu plana jarraitzeko ebaluazioa, epe horretan geratzen diren erronkak identifikatzeko.